

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Unibertsitatera sartzeko frogak ekainaren 4, 5 eta 6an egingen dira

*Hezkuntza Departamentuak 2018-2019 ikasturtearen Batxilergoko ebaluazioa egiteko jarraibideak onartu eta argitaratu ditu*

Ostirala, 2019.eko martxoak 1

Azterketak ekainaren 4, 5 eta 6an egingen dira deialdi arruntan, eta ekainaren 26, 27 eta 28an bigarren deialdia. Ikasleek frogak horiek gauzatzeko [izen-ematea](#) ikasketak bukatu dituzten ikastetxearen bitartez egingen dute.

Ebaluazioaren xedea ikasleen heldutasun akademikoa eta unibertsitateko graduako ikasketetan ongi segitzeko duten gaitasuna baloratzea da, eta baita ikasketa horietarako onarpen eskaerak ordenatzea ere, eskainitako ikaspostuak esleitzeko.

Batxilergoko bigarren mailako ikasgaien curriculumera egokitutako probak bi fase izanen ditu. Nahitazko arloa Batxilergoko 2. mailako enborreko irakasgai orokorreko buruzkoa izango da, eta gainera nahitazko fasean bosgarren ariketa bat egin beharko dute, Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaiari lotuta, Batxilergoko 2. maila D edo A ereduetan egin duten ikasleek, irakasgai horretatik salbuetsita ez badaude.

Borondatezko fasean, Batxilergoko 2. mailako aukerako enborreko irakasgaiari eta modalitateko enborreko irakasgai orokorreko buruzkoa izanen da, eta beren nota hobetu nahi duten ikasleak aurkeztuko dira fase honetan. Fase honetan aukera izango dute gainera, hala nahi izanez gero, bigarren Atzerriko Hizkuntza batean. Bi faseetako ariketak egiteko bi aukera emanen dira, eta ikasleak horietariko bat aukeratu beharko du.

Ikasleek beren hizkuntza ereduari dagozkion hizkuntzan egingen dute proba. Dena den, aldatzeko aukera izango dute, eta irakasgai guztiei eragingo die aldaketa horrek, Gaztelania eta Literatura II, Euskal Hizkuntza eta Literatura II eta Atzerriko Hizkuntza II.

### Emaitzak

Unibertsitatean sartzeko Batxilergoko ebaluazioaren kalifikazioa, Batxilergoko batez besteko notaren %60ren eta nahitazko faseko kalifikazioaren %40ren arteko batz bestekoa izango da, baldin eta fase horretan gutxienez 4ko nota eskuratu bada. Proba gaitzuztat joko da emaitza 5 puntukoa edo handiagoa denean.

Azterketa egin duten ikasleek, behin emaitzak argitaratuta, hurrengo egunetik hasita, hiru egun balioduneko epea izango dute azterketa berrikusteko.

Unibertsitatean sartzeko proba aurreko urteetan gaitzuztu zuten ikasleek aukera izanen dute unibertsitatean sartzeko Batxilergoko

ebaluaziora aurkezteko. Borondatezko fasera aurkeztu ahal izango dira, halaber, onarpen nota hobetzeko, titulu hauetakoren bat dutenak: Lanbide Heziketako goi mailako teknikari titulu ofiziala, Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi mailako teknikariarena edo goi mailako kirol teknikariarena.